

Funtsezko baliabideak:

Gure enpresa ondo funtzionatu ahal izateko eta bezeroak pozik egoteko funtsezko baliabide batzuk behar ditugu.

Lehenik eta behin, baliabide fisiko batzuk behar izango dira. Lan egin ahal izateko ez dugu beharko lantoki bat edo leku bat denak or lanean egoteko, izan ere, gure enpresa aplikazio bat da eta hori bakoitzak bere etxetik ordenagailuarekin kontrolatu dezake. Hori bai, bakoitzak ordenagailu bat eta telefono bat edukitzea beharrezkoa izan behar du, etxetik lan egin ahal izateko eta aplikazioa kontrolatzeko. Horrez gain, futboleko materiala beharrezkoa da, gure enpresan materiala alokatu daitezkelako eta horretarako guk material hori eduki behar dugu. Azkenik, baliabide fisikoei dagokienez, futbol zelaiak behar ditugu, jendean partiduak jolastu ahal izateko.

Jarraitzeko, baliabide intelektual eta giza baliabide batzuk ere beharko ditugu. Horretarako, Ekainen sormena erabili ahal izango dugu, aplikazioaren diseinu polit bat egiteko. Hala ere, hori egin ahal izateko ere, denon informatikako eta webguneak diseinatzeko ezagutzak beharrezkoak izango dira.

Azkenik, finantza baliabideak ere beharko ditugu. Gure enpresa, eta kasu honetan gure aplikazioa finantzatu ahal izateko, taldekide guztiek ditugun aurrezkiak erabiliko ditugu, izan ere, gure enpresan ez dugu espero diru asko gastatu beharko dugunik, soilik materiala erosteko, eta horretarako gure aurrezkiekin soberan dugu.

Beraz, pertsona bakoitza gauza batetaz arduratu beharko da:

- Ekain aplikazioaz arduratuko da, hau da, aplikazioa diseinatu, mantendu eta arazoak jasoko ditu, ondoren denei zabaltzeko eta konpontzeko.
- Publizitateaz Andde arduratuko da. Berak gure aplikazioan egongo den publizitatea bilatzen saiatuko da publizitatea behar duten enpresekin eta dirua ordaintzeko prest dauden enpresekin.
- Aimar beste enpresekin negoziatuko du. Futbol zelaien jabeekin hitz egin beharko du, guk zelaia eskuratu ahal izateko eta bezeroek jolastu dezaten.
- Gorka diru sarreretatik eta aurrekontuetatik arduratuko da. Enpresa hasteko beharko dugun dirua kalkulatu du eta irabaziko dugun dirua aurreikusteaz arduratuko da.
- Oier bezeroarekin harremanetan egongo da. Beraien arazoak jasoko ditu eta konpontzen saiatuko da eta gainera beraiekin hitz egin ahalko du arazoak konpontzen saiatzeko.